

## Azurmendi eta Hegel

*Xabier Insausti Ugarriza*

UPV/EHUko Filosofia Saileko irakaslea

Michel Foucaultek akademiara (*Collège de France*-ra) sartzerakoan egin zuen diskurtsoan, hauxe esan zuen: «Toute notre époque, que ce soit par la logique ou par l'épistémologie, que ce soit par Marx ou par Nietzsche, essaie d'échapper à Hegel» («Gure garaia guztia, logika aldetik edo epistemologia aldetik, Marx aldetik edo Nietzsche aldetik, beti saiatzen da Hegelengandik ihes egiten») (Foucault 1971: 74). Azurmendi ere ez da salbuespena horretan.

Baina Foucaultek ongi zekien Hegel saihestea ez dela erraza: Hegel behin eta berriz agertzen da; bere presentzia masiboa, orokorra da gaurko bizitzan, gaurko kulturaren, gaurko politikan... Hegel saihestearen arrisku bakarra ez da filosofia bera saihestea; baita ere, Foucaultek berak azpimarratu zuen moduan, «le recours contre [Hegel] est encore peut-être une ruse qu'il nous oppose et au terme de laquelle il nous attend, immobile et ailleurs» («Hegelen aurkako errekurtsioa Hegelek berak jartzen digun tranpa bat da; azkenean bera gure zain dago, lasai eta beste nonbaiten») (*ibid.*: 75). Derridaren *Glas* da horren adibidea.

Alemanek (horrela hitz egitea posible bada) beste estrategia bat garatu zuten Hegelen filosofiarekiko. Beraien arabera, Hegeli buruz gauza asko esan dira historian zehar, gehienak ez Hegelen barrutik baizik eta kanpotik; hau da, bestelako interesak – politikoak, erlijiosoak...– defendatzeko erabili da Hegelen filosofia. Horregatik, Hans-Georg Gadamerrek adierazi zuen joan den mendeko 60ko hamarkadan Hegel bera berriz irakurri behar dela, Hegel hitzez hitz irakurri («buchstabieren») behar dela, hau da, Hegelek esaten duena hitzez hitz irakurri, Hegel barrutik irakurri. Dieter Henrich-ek ere estrategia hori defendatu eta praktikatu zuen. Beraren arabera, ez gaude Hegelen filosofiarekiko harago, baizik eta oraindik ez gara ailegatu Hegelen filosofiarengana: «Orain arte Hegel ulertu nahi zuena bakarrik zegoen», esaten du Henrich-ek bere *Hegel im Kontext*-en. Hau da, existitzen den literatura guztiak ez du balio ezertarako. Azken batean, Zizek-en estrategia berdina da. Zizekek ere Hegelenganako itzulera defenditzen du. Hegelen filosofiara oraindik ailegatu ez garelakoan. Hegelen mezua oraindik *desideratum*-a da. Horretarako, Hegel Lacanekin konbinatu eta osatzea proposatzen du berak. Horrela, materialismo dialektikoari beharrezkoa zaion oinarri berria eman nahi dio. Zizekek eta Badiouk azken urteetan garatu duten eta defendatzaile sutsuak eta kritikari asko ere eduki dituen mugimendu filosofikoarekiko adi egon da Azurmendi.

## Hegel eta Europa

Edozein modutara, Hegel ezin da saihestu filosofian (Europar behintzat). Azurmendik hainbeste miresten duen Nietzschek berak esan zuen: aleman guztiak (eta horrek esan nahi du europar guztiak), nahi ala ez, hegeliarrak dira (gaude). Hegel nonahi dago. Hegel gainditzeko, lehenik Hegelengana ailegatu behar da. Nietzschek mezua bikoiztu da: oraindik ez dakigu zer garen eta horregatik ezin dugu gainditu gure egoera. «Arrazoimenaren loak munstroak sortzen ditu».

Ortega Gassetek esan zuenez, «Hegel Europaren heldutasuna da», eta Heideggerrek: «Hegel Mendebaldeko metafisikaren burutzea da». Bai, kondentatuta gaude behin eta berriz Hegelengana itzultzera. Theodor W. Adornok Beethoveni buruz esan zuena – Beethoven ez dela beste musikari bat, musika osoa baizik–, hori bera esan liteke Hegeli buruz: Hegel da filosofia osoa.

Azurmendik ere onartzen du Hegelen garrantzia. Bere testuetan askotan agertzen da Hegel, nahiz eta inoiz ez duen Hegeli buruz testu luze eta sistematiko bat idatzi, Renani, Humboldti edo Nietzschek buruz egin duen moduan. Beharbada bere *Volksggeist - Herri gogoia. Ilustraziotik Nazismora* (Elkar, 2007) liburuan aurkitzen dugu Hegeli buruzko bere tratamendu luzeena (137-178 orrialdeetan). Bide batez, beti galdetu diot nire buruari zergatik ez dion ematen garrantzi handiagoa Fichteri, bereziki bere filosofia politikoari.

### *Volksggeist*

Azurmendik bultzaturik daukagu *Gogoaren fenomenologia*-ren itzulpena euskaraz (2005). Hain garrantzitsua eta zentrala den alemanezko *Geist* kontzeptua euskarara *gogo* (eta ez *espíritu*, hizkuntza erromanikoetan egiten den moduan) itzultzeko proposamena berarena da. *Gogo* Loiolako Ignazioren *Gogo jardunekin* erlazionatzen da, eta hor aurkitzen du Azurmendik *Geist* alemanarekiko hurbiltasuna. Espirituak alemanez *Geist*-ek ez duen kutsu erlijiosoa du. Seguru aski hor badago kultura euskaldunak kultura alemanarekin duen etxekotasunaren, hurbiltasunaren zantzurik, kultura grekoerromatarrarekin ez duen zer edo zer. Baina hori ez da hemen gure gaia.

Orokorrean, Azurmendiren Hegelekiko estrategia hau da: politikatik filosofiara. Hegelen kontrakoa. Hegel logikarekin hasten da eta gero doa naturara eta gogora. Horrela dago eraikia bere *Sistema*, nahiz eta bere barruko mugimendua zirkularra izan, Hegelek berak *Entziklopedia*-ren bukaeran azaltzen duen moduan.

Zehatzago: *Volksggeist* kontzeptua da Azurmendirentzat Hegel interpretatzeko mamia. Kontzeptu horrek tradizio luzea du Alemanian. Bi tradizio daude kontrajarrita: bata, zuzenbide-historikoa: hemen mugimendua kulturatik politikara doa; bestea, Herderrena: politikatik kulturara.

Herder-en herria natura soilera urritua gelditzen da, baztertua zuzenbidetik, askatasunetik, beregaintasunetik; eta, Estaturik gabe, ez da «la indeterminada abstracción que se denomina con la

palabra ‘pueblo’», besterik. Subirania Estatuan baitatza, ez herrian. (Azurmendi 2007: 175, 587. oharra)

Bi tradizioen kontraesana da Azurmendiren erdigunea. Hegel dago Herderren tradizioan, baina Savigny-ren teoria historikoaren norabidean doa. Baina Hegelek ez du Savignyrekin positibismoa partekatzen.

Nik esango nuke Azurmendik ez duela ateratzen ondorio erradikalik konplexu horretatik. Zeren ezin da hartu modu arrunt batean. Volksgeistaren eta estatuaren arteko harremana dialektikoki bakarrik ulertu behar da. Uste dut Azurmendik ere norabide horretan seinlatu duela, baina ez du ondorioa bukaeraraino eramaten. Orokorrean, Azurmendik Hegel Herderren tradizioan jartzen du. Baina Hegelek aurrera eramaten du tradizio hori. Nahiz eta ez egon oso argi Azurmendiren testuetan, nik esango nuke (eta pentsatzen dut Azurmendik ere) Hegelek bi tradizioak batu eta horrela gainditzeko dituela. Dialektikoki. Eta Savignyren jarrera ezin da ulertu aurrerapausotzat, atzerapausotzat baizik. Azurmendik hori esan bai, baina besterik ez du egiten. Ez ditu ateratzen dagozkion ondorioak. Horrela bukatzen da Hegelen kapitulua, eta, besterik gabe, Savignyrena hasten da.

Hegel-ek, Herder hagitz hedatuz, historia unibertsalaren filosofian kokatuko du herri gogoia, eta herri gogoaren historikotasuna garaundu du: izpiritua esentzialki historikoa da; naturak, aldiz, ez du historiarik. (*Ibid.*: 138)

Baina «historia unibertsalaz berba egitea problematikoa da» (*ibid.*: 141), errepikatzen du behin eta berriro Azurmendik. Problematikoa ez da ezinezkoa. Hala ere, Azurmendi ez da inozoa. Hori ulertzeko Hegelen filosofian sartu behar da. Eta hori ez da erraza. «Hegel-en pentsamendua ez da erraza zuzen eta labur ematen asmatzen» (*ibid.*: 143). Hala ere, bera saiatzen da bere filosofia «zuzen eta labur ematen» (*ibid.*: 143-179).

Hiru pausotan egiten du hori. Lehenengo, naturaren eta historiaren arteko erlazioa aztertzen du (hau da, Sistemaren bigarren eta hirugarren zatiarena). Gero, arrazaren eta historiaren arteko erlazioa: arrazak historiarekin ez du zerikusirik: «edozein nazioaren historia ez da arrazarekin hasten, baizik izpirituarekin» (*ibid.*: 154); horrek esan nahi du Hegelentzat historia Grezian hasten dela. Eta, azkenik, historiaren eta estatuaren arteko erlazioa.

Historia Grezian hasten dela defendatzeak badu bere arrazoa. Hor agertzen da lehen aldiz indibidualtasuna, autokontzientzia. Horrela ulertu zuten, oso modu hegeliarrean, Adornok eta Horkheimerrek: *Ilustrazioaren dialektika*-n Ulises lehen ilustratua da, bere kabuz hasi zelako pentsatzen eta erabakitzen. Eta askatasun hori da Hegelentzat estatuaren hasiera bera. Autokontzientziarik gabe, askatasunik gabe, gizaki askerik gabe ezin da estatua eraiki. Aurretik ez da estatua existitzen, propioki esanda.

## Filosofia eta Sistema

Hegelen Sistematik distantzia hartzen du Azurmendik. Hasteko, logikatik, logikaren zientziatik, Sistemaren lehen zatitik. Azurmendirentzat, Hegelen logika teologia da. Hor dago koska. Zeren Hegelentzat logika errealitatearen distilaziotik dator, eta Azurmendirentzat ez; teologia 'goitik' dator.

... historia unibertsalaren kontzeptua bera, eta historia unibertsalaren filosofia, Herderrena bezala haren maisu eta kritikoa Kantena, eta Hegelena adina Marxena, teologiak dira denak nolabait. 'Unibertsalaz' ez dago mintzatzerik nolabaiteko teologiaz baino. (Azurmendi 2014: 10)

Renan ere ez da libratzen Azurmendiren kritika horretatik: «Renanen historiaren filosofia ere goitik Jainkoan bukatzen dela ikusiko dugu» (*ibid.*).

Kontzeptu unibertsalak ez dira existitzen Azurmendirentzat teologiatik at. Hor dago Azurmendiren alderik handiena Hegelekiko, nire ustez.

Baina Azurmendik ez du nahi Hegel erraz kritikatu; Hegeli buruz esaten du: «Hegelen lana izango da espiritu partikularren historiak Espiritu unibertsalaren historia nola ematen duten esplikatzeari – historia partikularrek historia unibertsala» (*ibid.*).

Eta hori da, dudarik gabe, Hegelen asmoa. Hasieratik, hau da, berak 1801ean argitaratutako lehen testutik, *Differenzschrift* deiturikotik.

Eta nola pasatzen da espiritu partikularretik espiritu unibertsalera? «Zer da espiritu unibertsala?», galdetzen du Azurmendik, horrelakorik teologiatik at existitzen ez dela erantzun guztiz egokia izango ez balitz bezala; Hegelen tranpa batean sentituko balitz bezala, Foucaultek esan zuenaren ildotik.

Zer da, orduan, espiritu unibertsala? Azurmendik, hemen, *espiritu* kontzeptua hartzen du (Azurmendi 2007), eta ez *gogo*, zerbait guztiz garbia izango ez balitz bezala. Asmatuko balu bezala teologiaz ari dela hemen, eta ez filosofiaz. 162-179 orrialdeetan saiatzen da galdera horri erantzuten, eta Hegelekin (edota Hegelen aurka) borrokatzen ikusten dugu.

Izpiritu unibertsala horixe da: herri partikularrez eta haien kontzientzia mugatuaz baliatuz, gizadi osoarentzat garatuz doan autokontzientzia, subjektu librearena den bezainbatean. [...] Kontuz, hala ere: erraza da gaizki ulertzea. (*Ibid.*: 164)

Ez daude alde batetik espiritu unibertsala eta beste alde batetik herri partikular ezberdinak borrokatzen espiritu unibertsala lortzeko. Ez daude herri ezberdinak (Alemania, Frantzia, Ingalaterra) elkarren artean borrokan espiritu unibertsala protagonizatzen ariko balira bezala. Ez; Hegel ez da nazionalista.

Gu mundua Estatu pila batekin ikustera gaude ohituak, eta arriskua dago Hegel-en historia unibertsala ehunka Volksgeistez osaturiko orkestra gisa imajinatzekoa, izpiritu unibertsalak zuzendua (gutxienez Estatuak adina instrumenturekin), Volksgeist bakoitza orkestrako zuzendari bera izateko amorratzen. Ez dago halakorik. (*Ibid.*)

Baina Hegel bera ere ez da argia horretan.

Baina konparatuz pasarte batzuk eta besteak, neuk ulertzen dudan tamainan behintzat, duda asko gelditzen da Hegel-en Volksgeistaren zermugaketa doi-doiak. [...] Gauza bat dago garbi, eta da, historia unibertsaleko Volksgeist protagonistak, izpiritu unibertsalaren manifestazioak historian, lau bakarrik direla (edo hiru) eta ez gehiago. (*Ibid.*: 165)

Alegia, ekialdekoa, grekoerromatarra eta germanikoa. «Ikusmolde historiko unibertsal batean, Volksgeist partikularrak lau izpiritu handiren barruan urtu edo bateratu egiten dira, hortaz» (*ibid.*). Horiek ez dira herriak, inperioak (*Reich*) baizik, azpimarratzen du Azurmendik Hegelekin. Eta sailkapen horren oinarria da: ekialdean pertsona bat bakarrik da libre; mundu grekoerromatarrean batzuk; mundu germanikoan denok dira libre. Eta ohar batean Félix Duquek esaten duena aipatzen du Azurmendik:

No está de más repetir aquí que Hegel entiende por ‘pueblos germánicos’ las bases de lo que, a través de la Edad Media, se iría configurando como el conjunto de estados libres europeos, cuyo ‘corazón’ estaría constituido por Inglaterra, Francia y Alemania. No hay pues manera de revestir a Hegel (para bien o para mal) con el manto del nacionalismo. (*Ibid.*: 167, 566. oharra)

Alabaina, honetan ere ez gaitu Hegel-ek segurantzia osoan uzten. (*Ibid.*: 165)

Nola harremantzen dira Volksgeista eta estatua Hegelen filosofian? Hori da Azurmendik aztertzen duena Hegeli dedikatutako azken orrialdeetan. Nahiz eta orokorrean Herder herrien alde eta Hegel estatuen alde dauden, erraza da hori gaizki interpretatzea, Azurmendiren ustez. Harreman hori dialektikoki interpretatu behar da. Estatuak Volksgeista gainditzen du: estatuak Volksgeistaren substantzia integratzen du eta gorako beste maila batera igotzen du. Estatuak Volkgeistaren dimentsio dispartsoak batzen ditu eta bere zehaztasuna ematen dio Volksgeistari.

Europa modernoa da askatasuna errepresentatzen duena. Baina ez arrazoi inperialista batengatik, baizik eta soilik denon askatasuna errepresentatzen duelako. Horrela, mundu germaniarra edo kristaua da mundu modernoa, Frantziako Iraultzan sortutako mundua, Frantzian sortutakoa eta Alemanian pentsatutakoa. Eta lan hori filosofiak egin du, azken batean.

Horregatik, estatua ere ez da azken hitza Hegelentzat, filosofia baizik. Hegel estatalistatzat jotzen dutenek ez dute ezer ulertu. Zeren estatalismoa, berriz (nazismoan, estalinismoan edo neoliberalismoan gertatzen den moduan), haxe baita: baten boterea denon aurka.

## Laburbilduz

Laburbilduz, Azurmendik oso modu leial eta sakonean aztertu du Hegel, inolako aldeakartasun eta aurreiritzietan erori gabe. Hala ere, ez du kontuan hartu logikaren zientzia. Eta gabezia hori akatsa da. Zergatik? Logika da, azken batean, Hegelen laborategi kontzeptuala. Hor aurkitzen dute kontzeptuek bere lekua. Logika *a priori* ontologikoa da. Ez *a priori* epistemologikoa. Hortik at, Hegel gaizki ulertzeko arriskua dago, bere kontzeptuak modo arruntean ulertzekoa, eta ez Hegelek Logikan definitu zituen bezala. Hori gertatzen da, adibidez, unibertsaltasunaren eta partikulartasunaren

kontzeptuekin. Hala ere, Azurmendik ere onartzen du Hegel dialektikoa dela, nahiz eta gero ez erantsi dialektika nola ulertzen duen. Horri buruz literatura zabala existitzen da.

Orokorrean, esan behar dugu Hegelek ongi ezberdintzen dituela historia (enpirikoa) eta historiaren filosofia. Biak ez dira beti berdinak. Baina biak gurutzatzen dira, bata besteari begiratzen dio eta osatzen dira.

Hori orokorrean argi dagoenez, Adorno, Ortega Gasset, Foucault eta beste askoz gehiago ere ibili dira historian zehar Hegelekin puntu horretan borrokatzen. Baita Azurmendi ere. Azurmendik ere nahi izan du Hegel gainditu, baina ez modu inozo batean. *Volksgeist - Herri gogoa* liburuaren hurrengo atalean Savignyren teoria historiko-positiboa aztertzen du. Hortik aurrera beste espazio batean sartzen gara, espazio zientista eta antimetafisikoa.

Hegeli buruzko atalean irekitako espektatibek ez dute aurkitzen jarraipenik, ez Azurmendiren liburuan, ez XIX. mendean. Filosofia ahazten da.

Baina Azurmendik Hegelekin duen borroka ez dago oraindik itxita, eta bere ekarpenak merezi du oraindik tratamendu sakonagoa. Eta bereziki sakonago pentsatzea.

## **Bibliografia**

- Azurmendi, Joxe (2007): *Volksgeist - Herri gogoa. Ilustraziotik nazismora*, Donostia, Elkarlanean.  
 — (2014): *Historia, arraza, nazioa. Renan eta nazionalismoaren inguruko topiko batzuk*, Donostia, Elkar.  
 Derrida, Jacques (1974): *Glas*, Paris, Galilée.  
 Foucault, Michel (1971): *L'ordre du discours. Leçon inaugurale au Collège de France*, Paris, Gallimard.  
 Hegel, G. W. F. (2005): *Gogoaren fenomenologia I eta II*, Donostia, Klasikoak. Itzultzaileak: Xabier Insausti eta Ibon Uribarri.  
 Henrich, Dieter (1971): *Hegel im Kontext*, Frankfurt, Suhrkamp.  
 Horkheimer, Max (1991): *Zur Kritik der instrumentellen Vernunft*, in *Gesammelte Schriften*, 6. liburukia, Frankfurt, Suhrkamp.  
 Horkheimer, Max; Adorno, Theodor W. (1947): *Dialektik der Aufklärung. Philosophische Fragmente*, Amsterdam, Querido Verlag.  
 Žižek, Slavoj (2012): *Less than Nothing. Hegel and the Shadow of Dialectical Materialism*, Londres eta New York, Verso,  
 — (2014): *Absolute Recoil*, Londres eta New York, Verso.

## **JAKIN**

Martin Ugalde Kultur Parkea  
 Gudarien etorbidea, 29  
 20140 ANDOAIN  
 943 21 80 92  
 jakin@jakin.eus  
 www.jakin.eus